



IZASKUN GUZTIAK IZASKUNEN BILDUTA

Izaskungo Birjinaren eguna ospatuko dute hilaren 21ean, igandea, Ibarako Izaskun auzoan 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-09-16

VIURTEA 1.509.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Era askotariko produktuak izan ziren salgai herenegun; «dena oso ondo atera zela» azaldu du Mari Jose Irazusta lehendakariordeak. ANDER OTEZABAL

ORIA ELKARTEA «OSO GUSTURA» AZOKAK EMAN DUENAREKIN

VILLABONA Merkatarik elkarteko kideek «salmenta onak» izan zituzten herenegun Errebote plazan antolatuta zuten I. Azoka Berezian; denetarik izan zuten aukeran erosleek 4



4 afari pare zozketan

Tolosako zerkausion
Irailak 18, 19, 20 eta 21ean
ospatuko den
Garagardo festarako



Otamendik Espainia salatu du Estrasburgon «torturak ez ikertzeagatik»

TOLOSA Giza Eskubideen Hitzarmeneko 3. artikuluko eskubideak urratzea salatu du 2

'Ezker eskuma' antzezlan, ostiral honetan Leidorren

TOLOSA Glu glu etxearen lana 20:30ean hasiko da 3

Jaka, Arzelus eta Onsalo ariko dira Joxean Tolosa Txapelketako finaletan

AMEZKETA Igandean izango dira, 17:00etatik aurrera 5

Alegiako ikastaroetan izena emateko epea, zabalik 5



Bizikletaren gainean Kilometroen alde

KILOMETROAK 08 ● Pasa den asteburuan bizikletaren gainean jarri eta pedalei gogor eragin zieten Anoeta, Irura, Tolosako eta Ibarako ikastoletako haurrek. Arratsalde pasa ederra izan zuten eta txokolatadarekin amaitu zuten marxta guztiek Iruran. Honekin guztiarekin, bide batez,

egunari begira jendeak bizikletan etortzeko aukera izango duela adierazi nahi izan zuten antolatzaileek. Horretarako, aparkaleku zainduak antolatu dituzte, bizikletak gordetzeko. Egun osoz gordeko dituzte bizikletak, aparkaleku horiek, Irurako Loatzo plazan egongo direlarik. HITZA

Laburrak

Bihar goizean Montezkue auzorako bidea itxiko dute

TOLOSA ● Bihar egin behar dituzten obra batzuk direla-eta Montezkue auzorako bidea ibilgailuentzat itxita egongo dela jakinarazi dute, 09:00etatik 12:00etara bitarte. Oinezkoek, berriz, apeaderotik pasa beharko dute.

Kultur ikastaroetan izena emateko epea, zabalik

TOLOSA ● Urtero bezala, Tolosako Kultur sailak ikastaroak antolatu ditu 2008/09 ikasterterako. Kultur tailer hauetan izena eman nahi dutenek orain dute horretarako aukera. Iazko ikasturtean ikasle izan zirenentzat, ostiralera arte dago aukera; ikasle berrientzat, berriz, hilaren 22tik 26ra.

Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko aukera

TOLOSA ● Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko epea ireki dute dagoeneko. Hiru bide erraztu dituzte horretarako: egoiztan bertan (Rondilla 34-B, 3.a 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara); telefonoz (943 651006 edo 943 652343); edota aitzolue@tolosakoudala.net helbide elektrinoan. Sarrera probak, berriz, hilaren 18an eta 19an izango dira, osteguna eta ostirala, hain zuzen.

Oargik Pirinioetara irteera antolatu du

TOLOSA ● Oargi mendi elkartek Anayet eta Midi de Ossau mendietara (Pirinioak) irteera antolatu du asteburu honetarako. Ostiralean abiatuko dira eta igandean itzuliko dira. Izena 630 830380 zenbakian eman daiteke.

Aranburun, Urdanpilleta eta Karakusen lanak

TOLOSA ● Aranburu jauregian bi erakusketa izango dira ikusgai egunotan. Batetik, Sukru Karakus artista turkiararen pintura erakusketa dago, urriaren 9ra arte. Jose Luis Urdapilletaren argazki erakusketa, berriz hilaren 26an inaureratuko dute eta azaroaren 8ra izango da ikusgai.

Martxelo Otamendik Espainia salatu du European, torturak ez ikertzeagatik

Tolosa ● Giza Eskubideen Hitzarmeneko 3. artikuluko eskubideak urratu izana salatu du, Giza Eskubideen Auzitegian.

ERREDAKZIOA

Martxelo Otamendi tolosarrak salaketa jarri du Europako Giza Eskubideen Auzitegian Espainiako Erresumaren kontra, Espainiako auzitegietan bide guztiak agortu ondoren. Aste honetan bertan aurkeztu du auzi eskaera Estrasburgoko Auzitegian, Inigo Iruin abokatuaren eskutik.

Salaketaren arrazoiak

Giza Eskubideak eta Oinarriko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 3. artikulua urratu izana egotzi dio Espainiari: «Ezin izango da inor torturarik edo zigor edo tratu gizagabe edo ankerrik ezarri». Hitzarmen haren 3. artikulua horrela jaso arren, Martxelo Otamendi *Berriaren* zuzendari eta *Egunkariaren* zuzendari ohiak «torturak eta tratu txarrak jaso zituen» 2003an, Guardia Zibilaren esku inkomunikatuta egon zen bost egunetan, aukera izan zuen lehen unetik bertatik salatu zenez.

Martxelo Otamendik salaketa

aurkezteko garaian «tortura salaketa hori (lehenik instrukzio epailearen aurrean eginga, eta ondoren Madrilgo epaitegian) eraginkortasunez ez ikertzea eta ikeretzeko bitartekorik ez jartzea» argudiatu du. Estrasburgoko Auzitegiaren jurisprudentzian argi jasota dago salaketa bat ikeretzeko betebeharra; Martxelo Otamendiren salaketa, ordea, ez da iritsi epaiketara, artxibatu egin dute (lehenik, 2004. urtean, Madrilgo 5. instrukzio epaitegiko epaileak eta gero, 2005. urtean, lurralde auzitegiko bigarren sekzioak), benetako ikerketarik egin gabe. Hori da, hain zuzen ere, Estrasburgoko Eu-

ropako Giza Eskubideen Auzitegian aurkeztutako salaketaren funtsa.

«Ez da ikerketa oso eta eraginkorrik egin»

Inigo Iruin abokatuak salatu duenez, «Espainiako agintari judizialek ez dituzte beharrezko urrats guztiak egin, ez dituzte bitarteko guztiak erabili eta, ondorioz, ez dute ikerketa oso eta eraginkorrik egin, auzi-jartzailearen ordezkaritzak proposatutako ikerketa ekimenak eragozteaz gain, horrela izanik, prozedurari dagokionez, Giza Eskubideen Hitzarmenaren 3 artikuluko eskubideak urratuz».

Hilberriak

MIKEL MARTINEZ DE MADINA MITXELENA

Urak dakarrena
urak daroa
Zuk emandakoa
gurekin geldituko da



ERRETERIA-ORERETA
2008ko irailaren
16a

Izeba-osabak eta lehengusuak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

'Ezker eskuma' antzerkia izango da ikusgai ostiral honetan, Leidorren

Kultura » Bi emakumeren bakardadeaz eta elkarren adiskidetasunaz mintzatzen da Glu Glu etxearen lan hau.

ERREDAKZIOA

Glu glu ekoiztetxearen *Ezker eskuma* antzerkia izango da ikusgai, ostiral honetan, Leidor antzokian. Emanaldia 20:30ean hasiko da, eta ohi bezala, Kutxanet bidez edo leihatilan bertan eskuratu ahal izango dira. Aizpea Goenagak idatzi du lan hau eta berarekin batera, Ane Gabarain aritu da zuzendari lanetan.

Glu Glu produkzioak etxearen ekoizpen hau emakumeen istorioak, «beraien bakardadea eta adis-

kidetasuna» kontatzen dituen antzerki labur bat da.

Bi emakume, Rosa eta Sara, dira protagonistak, bakoitza bere etxean bizi da, bere munduan, eta euren egunerokotasunak dituen arazoekin borrokan. Kontu bakar batek elkartzen ditu, alegia, biak solairu berdinean bizi direla, ezker eskuma.

Rosa etxekoandre porrokatu prototipikoa da, bere bazkari eta janariak ditu hizpide. Senar isil eta anonimoa du kidea, alegia, hutsaren parekoa. Sara berriz bakarrik bizi den emakumea da, etxetik kanpo lan aspergarri bat duen emakumea. Noiz behinka interneten sartzea beste denborapasarik ez duena.

Nahiz eta elkarrekin zer ikusirik ez izan, elkarren konpania eta la-



Loli Astoreka eta Iñake Irastorza dira antzeztelako protagonistak. HITZA

guntasuna ezin bestekoa izango da eguneko borrokan aurrera egiteko. Baina abiapuntu honetatik tira eginez, ez da antzeztelan goibela. Bakoitzak badaki zer duen ispluaren beste aldean, eta hala ere aurrera egiteko gai eta gauza dira, beren

umore, haserre eta laguntasunarekin. Halako egoera batean ohikoak diren topikoak, haietatik ihes egiteko besterik ez dute balio eta beste ikuspuntu surrealista eta absurdoago batetik hatzen du bere bi-dea.

Sortzaileen esanetan, lan honekin bete nahi duten helburua «aktore lan interesgarri bat eskaintzea da eta umorearen bitartez emozio ezberdinak erakutsiko dituen kalitatezko herritara eramatea da. Era berean antzerkia Euskal Herriko hainbat leku eta txokotara eramatea da».

Ezker eskumaren egile Aizpea Goenagak garbi utzi nahi du obrak baduela umorea, «komedia tonua» erraz sumatzen dela, «baina testuinguru dramatiko batean, beti ere». Umore horrek absurdo horribiltzen du obra, haren ustez. «Bizitza txikiak gertaera garrantzitsu bilakatzen ditu lanak, hori zen helburu nagusia». Edonola ere, ikusleak «tarte atsegin bat» pasa dezan nahi dute, hori da *Ezker eskumaren* izaera.

Horretarako bi pertsonaien arteko elkarriketa biziak baliatzen ditu obrak. Borrokan aritzen dira biak, baina elkarren beharra dute. Iñake Irastorza (Sara) zakarra da, eta indar handiko pertsona. Loli Astoreka (Rosa), berriz, goxoagoa da, alaiagoa, baina bizilagunaren indarraren beharra dauka aurrera ateratzeko. «Bizitzak dauden lekura eraman ditu emakume horiek, eta leku horretan egin dute topo».

Batzokiari pintura jaurti diote ezezagunek



Pintura jaurti dute asteburu honetan Tolosako batzokira. ESTI EZEIZA

Politika » «Herenegungo Donostiako manifestazioan izandako jarrera» salatu nahi izan dute ekintzaileek.

ERREDAKZIOA

Asteburuan, Tolosako Batzokiaren aurka pintura jaurti dute, eta ezezagun talde batek, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARA igorritako mezu baten bitartez bere gain hartu du ekintza. Honekin, «EAJk herenegungo manifestazioan illegalizazioan izandako ardura salatu» nahi izan dute.

Ekintzaileek azaldukoaren

arabera, «EAJren jarrera oso faltsua da, herriak bere iritzia kontsultan emateko eskubidea defendatzen duen bitartean, manifestazio eskubidea ukatzen dio ezker abertzaleari». Honez gain, «herri honetako sektore bati erabakitze-ko eskubidea ukatzen dio udal-txetaan apartheid-a bultzatuz eta espainiarrekin batera, mozioak aurkeztuz».

Manifestazioaren debekua

Amnistiaren Aldeko Mugimendua euskal presoaren aldeko manifestazioa antolatzen zuten atzo (urte-rogin ohi da), baina astebe-beranduago Jaurlaritzako barne sailak debekatu egin zuen. Hala

ere, milaka lagun azaldu ziren preso-ko eskubideen alde egitera, eta 13:45ean ekimena hasi zuten Bule-ardatzen duen bitartean, pankarta-rik gabe eta eskuan afixak zitu- tuztela. «Sakabanaketa, gaixotasu- n larririk dituzten presoaren aske- ez uztea, zigorraren hiru laurde- nak beteak dituzten ere libre ez uztea eta Parot dotrina (zigor pila- tzea)» salatu zituzten.

Ertzaintzak, baina, galarazi egin zuen manifestazioa. Ondoren istu- lu handiak gertatu ziren Alde Zahar- rean herritar eta ertzainen artean. Ertzaintzak bost pertsona atzeman zituen, desordenu publi- koak eragitea leporatuta, eta beste bat inputatu egin dute, irain egin

zielakoan. Horretaz gain, kaleko jantziz zegoen Espainiako Polizia- ko kide batek pistola atera eta aire- ra gutxienez zazpi tiro bota zituen Konstituzio Plazan.

DYAK 50 urteko gizonezko bat Donostiako Ospitalera eraman zuen, ertzainek botatako pilota batek bularrean jo eta gero. DYAKo- ke beste zazpi lagun artatu zituz- ten, ertzainen pilotakadengatik.

Herenegun Donostian izanda- ko liskarretan Ertzaintzak atxilotu zituen bost lagunak aske utzi zi-

tuzten atzo iluntzean. Bostek, or- dea, epailearen aurretik pasatu be- harko dute hurrengo astean.

Donostiako Udaleko talde poli- tiko guztiek herenegun izandako istiluak arbuia egin zituzten atzo. EAE-ANV ez dago Udalean. Bestalde, Amnistiaren Aldeko Mugimendua (AAM) gogor sala- tek beste zazpi lagun artatu zituz- ten, ertzainen pilotakadengatik. Herenegun Donostian izanda- ko liskarretan Ertzaintzak atxilotu zituen bost lagunak aske utzi zi-

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Autoa.** Fiat Ducato, 2007 urte-koa. 120 zaldi. 28.000 kilometro. Lau pertsonentzako, lo egin eta bi- daiaitzeko hornitua. Klimatizado- rea, ABS frenuak, berogailu estati- koa, aurreko eserleku giratorioak. Kornuna ere badu. Harremaneta- rako: 626 78 68 17ra deitu edo amaiaaro@terra.es-era bidali me- zua.
- **Autoa.** Peugeot Partner diesela. Egoera onean. Interesatuek deitu 649 5109 41era.
- **Egurra.** Sutarako pago egur le- horra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 615 75 57 62.
- **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosa-

ko Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu 657 23 00 11era edo 634 91 94 82ra.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Anoretan esperien- tzia duen zerbitzari bat behar dugu. Igandeetan jai. Interesatuek deitu 650 04 31 39ra.

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da etxeko lanak egin ta bi haur zaintzeko. Deitu 686 11 89 20ra.

ALOKAIRUA

■ **Etxea.** Etxebizitza bat hartuko nuke alokairuan Tolosan, Ibarren, Villabonan edo inguruan. Deitu 635 71 24 44ra.

Laburrak

Bizikletan ibiltzen ikasteko helduentzako ikastaroa

INGURUMENA • Ernioaldea Udaltalde 21ek hainbat egitasmoa antolatu ditu Aste Berdearen inguruan. Horietako bat bizikletan ikasten ibiltzeko helduentzako ikastaroa izango da hilaren 29tik urriaren 3ra. Ikastaroa Kalapie Donostiako Hiriko Txirindularien Elkartearen bidez antolatu dute. Udaltaldeko udalek ikastaroaren matrikularen erdia ordainduko dute eta herritar interesatuak 35 euro ordaindu beharko ditu. Ikastaroa astelehenetik ostiralera izango da, ordu eta erdiko saioak emanez egun bakoitzean. Ikastaroa emango den lekua zehazteke dago, parte-hartzaileen araberakoa izango baita. Izen-ematea irailaren 16tik 24ra izango da eta 65672.80.85 zenbakira deitu behar da.

Aukera zabala euskara ikasi nahi duenarentzat

ZIZURKIL • Euskara ikasteko hainbat aukera daude Zizurkilen. Atzerriarrentzako ikastaroak, esaterako, euskararekin lehenengo hartumana izan dezaten antolatzen dira eta 60 ordu irauten dute. 10 eurokoa da prezioa eta hilaren 26ra arte eman daiteke izena udal bulegoetan. Bestalde, Zizurkil eta Villabonako udalek herrian bertan euskara ikasteko taldeak antolatuko dituzte. Hilaren 26ra arte eman daiteke izena udal bulegoetan. Azkenik, alfabetatze ikastaroak antolatu ditu Iriarte Etxean. Asteazketan izango dira, 19:00etatik 20:00etara, 60 euroren truke.

Ikastaro ugari herrian bertan egin ahal izateko

ZIZURKIL • Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu. Haurrentzat marrazketa, euskal dantza, dantza modernoa, antzerkia eta bertsoariak izango dira. Helduentzat eskulana, patchwork, pilates eta aerobik. Ikastaro motzak ere badaude: automakilaia eta esku eta oin estetika eta ukenduak egitea. Guztientzat hilaren 25era arte dago aukera izena emateko. Jubilatuek ere izango dituzte beraiantzako ekintzak: gimnasia, eskulana eta yoga. Horretarako Elizpe elkartearen bertan eman behar da izena.



Era askotariko produktuak izan ziren salgai herenegun Erreboten plazan egindako azokan. ANDER OTEZABAL



Oria elkarte «oso gustura» I. Azoka Bereziak izan duen erantzunarengatik



Loreak ere salgai izan ziren Azoka Bereziaren. ANDER OTEZABAL

Villabona • «Mari Jose Irazusta lehendakariordea: «Dena oso ondo aterata da eta kideek salmenta onak izan dituzte»».

IMANOL GARCIA

«Oso gustura» azaldu dira Oria merkatarien elkartearen kideek I. Azoka Bereziak emandakoarekin. Mari Jose Irazusta elkartearen lehendakariordeak azaldu duenez, «dena oso ondo aterata da eta elkartearen kideek salmenta onak izan dituzte».

Oria merkatarien elkartearen kideek kalera aterata nahi zituen egitasmo honekin eta jendearen erantzuna oso ona izan da. Hasieran espero baino postu gutxiago jarri zituzten, guztira 11, baina denetarik izan zen erosteko moduan: ogia, loreak, arropa, ilearentzako produktuak, liburuak...

«Eguraldia ez zen ona izan, baina jendea etorri zen plazara eta beraz jendeak bazuen interesa azokan», azal du Irazustak. Villabonakoak ez ezik, inguruko herritartariek ere joan ziren azokara. Produktuak ohi baino merkeago zeuden orokorrean eta mauka bat edo beste lortzeko aukera ere izan zuten

erosleek. Taberna bat ere jarri zen eta bertan zeuden pintxo guztiak agortu ziren.

Oria elkartetik garbi dute errepikatu egingo dutela eta datorren urtean berriro antolatuko dutela azoka berezia. «Lan asko egin behar izan dugu, baina merezi izan du esfortzuak», dio elkartearen lehendakariordeak. «Datorren urterako dendari gehiagok postua jarriko dutela espero dugu», gaineratu du.

Azokatik pasatu ziren herritarrek ere eskertu zuten horrelako gauzak antolatzea. «Horrelako gauzak egin behar direla esan zizun jendeak», azaldu du Irazustak. «Herriaren giroa sortzea ona da guztientzat. Tabernariak ere eskertzen dute herritarrek herriaren gelditzea». Ikusitako arrakastarekin, Oriakoekin datoren urtean ere, esan bezala, bigarrengo Azoka Berezia antolatzeko asmoa azaldu dute.

Ikastaroak

Azoka Bereziarekin bukatuta, Oria elkartearen kideek erakuslehoak apaintzeko ikastaroa hasiko dute bihurtik aurrera. 17 kide eman dute izena eta guztira bost aste iraungo du ikastaroak, asteen behin elkartuko dira Kultur Etxean.

«Ikastea den guztia ondo etortzen zaigu», azaldu du Irazustak. Horrela, informatikako ikastaroa ere antolatzeko asmoa dute. «Gure artean egin genuen inkestak bat eta informatikako ezagutzak handitzeko beharra zegoela azaldu zuten kideek».



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A.

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Joxean Tolosa Txapelketako finaleran Jaka, Arzelus eta Onsalo ariko dira

Pilota » Zazpi-Isturri eta Aurrera pilota eskoletako hiru pilotari iritsi dira «gogorak» izango diren finalerara.

NEREA URBIZU

Datorren igandean, hilak 21, Amezketako pilotalekuan XIX. Joxean Tolosa eskuz banakako Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte 6 pilotarik: kadete, gazte eta nagusien mailako sei pilotari, alegia. Final honetara Tolosaldeko pilota eskoletan aritzen diren hiru pilotari ariko dira: Lizartzako Jaka (Amezketako Zazpi-Isturri), Arzelus (Zazpi-Isturri) eta Onsalo aresoarra (Aurrera-Saiaz).

Eskualdeko pilotarietaz dituzte aurkari xamurrak: Jakak Loidi (Añorga) izango du aurrez aurre. «Loidi mutil handi bat da», dio Xalton Zabala Zazpi-Isturri pilota eskolako delegatuak «eta kadeteen mailako zaharrenetakoa da. Azpimarratzekoa da Jaka berez infantila dela eta ez kadetea. Aurtengo helburuak beteta daude, nahiz eta finala gero galdu».

Gazteetan Irurtzungo eskolarekin dabilen Zabaleta ariko da Arzelusen kontra. «Faboritoa Zabaleta da: azkenaldian nahiko galduta ibili da eta finalera iristea sorpresa izan da. Jubenilen mailan atzelari onenetakoa da eta seguri-dadea ematen du eta konstantea da oso». Arzelusek, hala ere, ez dizkio gauzak erraz utziko nafarrari.

Irurtzungo pilota eskolan dabilen beste bigarren pilotaria iritsi da finalera: Xuban Armendariz. Onsaloaren aurka aritu beharko da igandean. Armendariz lekunbe-



Joan den urteko Joxean Tolosa finaleran jende ugari bildu zen pilotalekuan. ANDER OTEZABAL

rriarra Espainiako txapelketa da, eta Onsalo, berriz, Euskadikoa eta aurrez aurre lehiatzea egokitu zaie. Zabalak faborito Onsalo dela dio. Edozein kasutan, ikuskizuna egongo da partida honetan ere.

Azpimarratzekoa, «giroa»

Txapelketa honen baitan Zabalak «ikusleek sortu duten giroa» izan da. Final-laurdenetan aspaldian ez zuten horrenbeste jenderik bildu (aurten 100 lagundik gora) eta «giro hori asko gustatu zait; jendea oiuhuka, txaloka, momenturen batean isiltasuna ere... Jendearen erantzuna oso ona izan da. Horrez gain, eguraldi goxoa izan da eta nabaritu da, bestela pilotalekuan egotea ez da oso atsegina». Finalerdietara «final-laurdenetan baino jende gehiago hurbildu da».

Pilotarietaz ikusleen beroa nabaritzen dutela argi dago. «Partida politak ikusi ahal izan dira txapelketan zehar. Esaterako, Armenda-

riz eta Andreuren arteko norgehiagoka jende guztiak bizitu zuen (18-16).

Finalerdietako emaitzak

Ostiralean Loidik 10-8 galtzen egonda irabazi zion Azpeitiko Aizpururi, kadeteetan. Gazteen mailan, «Zabaletak ez zion arnasa ere hartzen utzi lehengo urteko txapelketa» hiru tantotan utziz. Nagusietan Elurbek lehenengo sakean falta egin eta 12-0 jarri zen galtzen. Nahiz eta emozioa eta «giro polita» jarri, 11n irabazi zion Armendarizek.

Kadeteak aritu ziren. Partida honetan Lizartzako infantila den Jakak 18-11 irabazi zion Bereziarturi, nahiz eta 6-1 galtzen egon. Gazteetan, kosta zitzaion zentratzea Arzelusi, baina azkenean 18-11 irabazi zuen.

Nagusietan «partida gogorra jolastu zuten» Onsalo eta Otxandorenak. «Otxandorenak badaki zer

» DATU BATZUK

- **Ekitaldia.** XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalak.
- **Eguna.** Irailak 21, igandea.
- **Lekua.** Amezketako frontoian.
- **Ordua.** 17:00etan.
- **Pilotariak.** Jaka, Loidi, Arzelus, Zabaleta, Onsalo eta Armendariz.

den Amezketan txapela ateratzea, kadete eta gazte mailan ateratakoa baita», baina nagusietakoa atera nahi badu «itxaron egin beharko du beste urte bete bat gutxienez»: Onsalo 6-0 galtzen jarri arren, 18-11 irabazi zion.

Finalen eguna aldatuta

Hasiera batean, XIX. Joxean Tolosa pilotako finalak hilaren 14ean ziren jokatzekoak, baina beste final bat zela medio, aldatzea erabaki zuten Zazpi-Isturrikoek. Urtero bezala, Joxean Tolosa bera ere han izango da.

Larraitz Bidearen ondoko urbanizazio proiektua onartuko dute

Amezketak » Etzi iluntzeko ohiko bilkuran jorratuko duten puntuetariko bat izango da Larraitz Bidekoa.

ERREDAKZIOA

Etzi 20:30ean Amezketako udal-tereko pleno aretoan ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dituzte: uztailearen 29an eginiko ez ohiko bilkuraren Akta Agiriaren onarpena eta Larraitz Bidearen ondoko eremuko urbanizazio proiektuaren behin-betiko onarpena.

Bukatzeko, batzordeen informazioa emango dute ezagutzera eta galdera eta erreguak egiteko tartea ere gordeko dute.

Kultur Batzordean parte hartzeko deialdia zabaldu dute Alegian

ERREDAKZIOA

Udako oporretako etenaldia eta gero, Alegiako Kultur Batzordea martxan da berriro. Herriko kultur taldeetako kideek eta kulturarekin interesa duten herritarrek osatzen dute batzorde hau. Batzordeko kide izan edo proposamen zehatzen bat helarazi nahi duenak bertan izango du aukera, bilera ireki hauetan. Jaiak, kultur asteak, azokak... jorratzen eta antolatzen dituzte besteen artean.

Herrian bultzatzen diren edota bultzatzen diren ekimenen inguruko proposamenak eta ideiak lantzeko gunea da batzordea. Bilerak 15 egunetik behin egingo dituzte: hurrengo, hilaren 25ean izango da, osteguna, eta Kultur Etxean biltzen dira 19:00etan hasita. Batzordeko kide izan edo proposamen zehatzen bat helarazi nahi duenak bertan izango du aukera, bilera ireki hauetan. Jaiak, kultur asteak, azokak... jorratzen eta antolatzen dituzte besteen artean.

Ikastaroen berri eman dute Kultur Etxean

Alegia » Bihartik aurrera eman ahal izango da kirol eta kultur ikastaroetan izena, Alegiako Kultur eta Kirol Etxean bertan.

ERREDAKZIOA

Alegiako Kultur eta Kirol Etxeak dagoeneko prestatu ditu aurten eskainiko dituen ikastaro eta jarduerak. Izen-emateak bihartik aurrera egin ahal izango dira Kultur Etxean bertan, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeaz 15:00etatik 21:00etara bitartean.

Kirolari dagokionez, aerobic-a dute lehenik. Astelehenean ostegunera, 19:00etatik 20:00etara izango dira eskolak. Mantentze



Eskulaneekin erakusketa egiten ohi dute Alegian. N.L.

soinketa astelehen, asteazken eta ostiralean izango da 15:00etatik 16:00etara. Bukatzeko, adinekoen gimnastika. Hau ere astelehene-

tan, asteazken eta ostiralean izango da 11:00etatik 12:00etara. Urriaren batean hasiko dira ikastaro hauek.

Kultur ikastaroak

Kulturarekin lotuta dauden ikastaroak eskulanak eta memoria tailerra izango dira aurten. Eskulan ikastaroa bi ordukoa izango da, astezketan 10:00etatik 12:00etara, edo aukeran arratsaldez egin daiteke: 15:00etatik 17:00etara. Ikastaro hauek urriaren 8an jarriko dituzte martxan.

Azken urteetan eskaini duten memoria tailerra astearteetan izango da ordu batez, 11:00etatik 12:00etara, hain zuzen ere. Azaroren 4an izango da memoria tailerreko lehen klasea (asteartea), Kultur Etxean.

Kultur Etxetik ohar bat bideratu dute: ikastaroetan izena ematen duenak irauten zuten epe osoa ordaindu beharko du.

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Kale Nagusian eta Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Legorreta eta Iruran). Etxebizitza eraberritzeko.
Salgai. Garajeak.
San Frantzisko eta Amarotzen (Tolosa) eta Idoagian (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, ximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza San Frantziskon eta Soldadu kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean eta Batxilerr Zaldibian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Izaskunen bilkura izango da igande honetan

Ibarra » Izaskungo Birjinaren eguna behar bezala ospatzeko hilaren 21ean bilduko dira Izaskun izena duten guztiak.

ERREDAKZIOA

Izaskun izena duten guztientzako datorren igande honetan da euren eguna. Izaskun Birjinaren jaia da eta hori dela eta, urteroko moduan, egitaraua antolatuta dute Izaskunen.

Ekitaldien artean Izaskun izena dutenen bazkaria ere badago, beti bezala. Izaskun jabetxean izango



Iaz ere meza eta bazkaria izan zuten Izaskungo ermitan. HITZA

da otordua eta ondoren Iñigo Perurenak alaituko du giroa arratsaldera arte bere orkestraren laguntzarekin.

Izaskun diren eta bazkaririra joan nahi duten guztiak goizetan 943 67 59 27 telefono zenbakian eman behar dute izena etzi, hilak 18, baino lehen.

Toka eta meza

Bazkariarekin batera, igandean Laugarren Toka Txapelketa ere egingo dute 12:00etan.

Txapelketa eta gero, eguerdieko ordu bata eta erdiak inguruan, meza izango da Izaskungo ermitan bertan.



Fin aritu ziren pasa den larunbatean Ibarraoak. M. SOROA

Berdinketa lortu du Ibarrao areto futboleko taldeak, Area 99 taldearen aurka

Areto futbola » Hiruna egin zuten pasa den larunbatean Lizarrerian jokatuako denboraldiko lehen partidaren.

SINADURA

Ibarrao areto futboleko taldeak ondo hasi zuten denboraldi berria pasa den larunbatean. Area 99, lehenagoko Perfiles Sintal, taldearen kontra jokatu zuten Lizarrako Lizarreria kiroldegian eta bertan 3-3koa egin zuten.

Aipatu behar da berdinketa are garrantzitsuagoa dela Area 99 taldea pasa den urteko denboraldian

Zilarrezko Maialan aritu zela kontutuan hartuta.

Txubelek gidatzen duen Ibarrao taldea oso ondo aritu zen, nahiz eta ezin izan zuten Ion Ander Karreraren eta Cristian Davilaren laguntzarik izan, arazo desberdinak direla medio ezin izan baitzuten jokatu.

Arazoak arazo, ibarrek oso joko ona eta bizia izan zuten partidaren guztian zehar. Hasieratik izan ziren partidako jaun eta jabe, nahiz eta lehen minutuetan sartu ziren lehen gola Lizarrako taldeak. Minutu gutxiara, hala ere, David Pradosek eta Unai Labakak egindako elkarlanari esker berdinketa lortu zuten ibarrek.

Eguneko hirugarren gola Lizarrakoen eskutik heldu zen; Ibarraoek falta gehiegi pilatu zituzten eta penaltien bidez lortu zuten Area 99ek euren bigarren gola. Ion Ander Garmendiak lortu zuten berriz ere berdinketa.

Bigarren zatia

Bigarren zatian Aritz Otaegik lortu zuten berriz ere Ibarraoak gailentzea, nahiz eta Area 99koak, azkenean, markagailua berdintzea lortu zuten.

Ibarra-Lauburu taldeak fisikoki ondo dagoela utzi zuten agerian larunbatean, partida osoan zehar euren markatu zutelarik jokoaren eritimoa.

Mugikortasun Asteari ekingo diote gaur

Ibarraldea » San Lorenzo Udaltalde 21ek antolatuta ditu Europako Mugikortasun Astea ospatzeko ekintzak.

ERRDAKZIOA

Berastegi, Elduain, Berrobi, Ibarra eta Belauntza biltzen dituen San Lorenzo Udaltalde 21ak Mugikortasun Astea antolatuta du. Gaur hasiko dira ekintzak eta datorren astelehena bitarte iraungo dute.

Gaurkoan, hortaz, Ibarrao Uzturpe, Berrobiko San Andres eta Berastegiko Muñagorri ikastetxe eta Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko ikasleek autoetan umeak lotzeko sistema homologa-

tuen erabilpenari buruzko hausnarketa bultzatzeko materiala jasoko dute.

Biharkoan, aldiz, isun sinbolikoak jarriko dizkiete Berastegin 09:00etatik 11:00etara gaizki apartakuta dauden autoei Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzako laguntza izango dutelarik. 16:00etatik 18:00etara bizikleten txekoak ere egingo dute Ibarrao Emeterio Arrese plazan. Ostegunean Ibarrao jarriko dituzte isun sinbolikoak, 10:30etik 12:30era. Berastegin bizikleten txekoak egingo dute ostiralean, 09:15etik 11:15era frontoiko plazan eta 11:30ean bizikleta martxa egingo dute. Astelehenean Ibarrao Lehen Hezkuntzako ikasleek egingo dute martxa 12:00etan.

Hasi dira EHAKren auziko deliberazioak

Ibarra » Eider Imaz ibartarrak inputatu gisa deklaratu zuten pasa den astean, Madrilan, Baltasar Garzon epailearen aurrean.

ERREDAKZIOA

Madrileko Auzitegi Gorenaren 61. Aretoa atzo goizean hasi zen EHAK eta EAE-ANVren ilegalizazioa bultzatzeko deliberazioekin. Izan ere, EHAK atzo arratsaldeko hirurak arte zuten bere arrazoibideak aurkezteko epea, baina goizean helarazi zituen Auzitegi eta ondorioz, berehala hasi ziren epaitegian lanean. EHAKko auzian Eider Imaz ibar-

tarra dago inputatu gisa eta pasa den astean izan zen Madrilan Garzon aurrean hitz egiten.

Horiek horrela, epaia eman behar duten 16 magistratuak goizean eta arratsaldean bildu ziren.

Berri agentziek esandakoaren arabera, baliteke hilaren 22rako izatea auziaren inguruko epaia, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren berrikuntzarako hitzartutako eguna baino egun bat lehenago, hain zuten ere.

Izan ere, EHAK eta EAE-ANV taldeen ilegalizazio salaketek aurrera egin ahal izateko kontseiluko buru den Francisco Jose Hernandez epailearen oniritzia behar da eta Hernandez, aipatu moduan, hilaren 23an utziko du kargua.

Mendi Bizikleta Martxa eta Maratoi Erdia hilaren 21ean

Leitza » Bizikleta zaleak geltoki zaharretik irtengo dira 11:30ean eta korrikalariak Erreka Sagardotegitik 09:30ean.

ASIER IMAZ

Plazaola Partzuergo Turistikoak Natur Bideen Europako Egunarekin bat eginaz VI. Mendi Bizikleta Martxa eta III. Maratoi Erdia antolatu ditu hilaren 21ean, igandean, Plazaolatik barna. Babesleen artean Leitza Udalagertzen da, Lekunberrikoa, Andoaingoa eta Larraungoa bezala.

III. Maratoi Erdia

Maratoi Erdia 21 kilometrotakoa izango da. Irteera Leitza Erreka Sagardotegian izango da 09:30ean. Mugirotik igaro ostean korrikalariak amaiera Lekunberriko edukiko dute.

Partaideek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta izena emateko epea etzi, ostegunean, amaituko da. Parte hartu nahi duenak hiru aukera edo bide dauzka zabalik: Lekunberriko Turismo Bulegora joan daiteke Maratoi Erdian irten nahi duela esanaz; www.plazaola.org web orrian sar daiteke edota 948 50 72 04 telefono zenbakira dei dezake.



Plazaolatik barna ibiliko dira igandean mendi bizikletan eta korrika. JAIONE ASTIBIA

VI. Mendi Bizikleta Martxa

Natur Bideen Europako Egunarekin batera, Plazaola Partzuergoak Mendi Bizikleta martxa antolatu du hilaren 21ean Andoaindik Lekunberri.

Andoaindik 10:00etan irtengo

dira bizikletekin eta Leitza 11:30ean. Plazaolako geltoki zaharretik Lekunberri abiatuko dira 15 kilometroko bidean barna.

Aurrez izena eman nahi duenak Maratoi Erdiko bide berak edukiko dituzte eskura. Horretaz gain, 7

euro ordaindu beharko ditu. Egunean bertan izena emateko aukera ere egongo da baina kasu honetan 9 euro ordaindu beharko dira. Kasak eta argi frontala eramatea derrigorrezkoak izango direla aipatu dute antolatzaileek.

Nafarrak lehen postuan eta gipuzkoarrak bigarren

Herri kirolak » Bi ibartar eta bi leitza Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketaren lehen postuetan.

A. IMAZ

Euskal Herriko Zazpi Herrialdeen arteko Txapelketa Nafarroa irabazi zuen bosgarren aldiz jarraian iragan larunbatean Donostian. Gipuzkoa bigarren geratu zen.

Gure herri kirolariak

Euskal Herriko txinga-eroate Txapelketa irabazi ostean, Miguel Angel Sukunzak hirugarren postua lortu zuen Donostian. Leitzarrek 17 unte eta 22,54 metro egin zituen. Sukunzaren aurretik Roman Hierro arabarra, 26 unte eta 2,60 metroekin, eta Joxe Agirregabiria gipuzkoarra geratu ziren, 26 unte eta 1,60 metro egin ostean.

Josetxo Urrutia ingudearekin aritu zen lanean Donostian. Harri-jasotzen iaioa den leitza bigarren postuan geratu zen ingude-jasotze proban, 87 jasoaldirekin. Bere aurretik Joxe Lapazaran bizkaitarra geratu zen, 94 jasoaldirekin.

Sukunza eta Urrutia Nafarroako taldearekin aritu baldin baziren, Otermin anaiak, sokatiran, Gipuzkoa ordezkatzu aritu ziren. Imanol eta Lander Otermin ibar-

tarrak laugarren postuan gelditu ziren.

Nafarroa jaun eta jabe

Nafarroa bosgarren urtez jarraian irabazi zuen larunbatean Zazpi Herrialdeen arteko herrikirol txapelketa. Nafarroako taldea zen faborito eta guztira seigarren aldiz irabazi zuen txapelketa.

Imanol eta Lander Otermin ibartarrek laugarren egin zuten, Gipuzkoa ordezkatzu

Txapelkunek alde handiz irabazi zuten, eta azken proba, aizkorakoa, jokatu aurretik txapela zitura zuten. Bigarren Gipuzkoako taldea izan zen, eta Bizkaiko hirugarren. Bizkaitarrek uste baino maila apalagoa eman zuten.

Iazko hutsunearen ondoren Zuberoa lehiara itzuli zen, eta Nafarroa Behereak bezala proba guz-

tietan parte hartu ez bazuen ere, lan txukuna egin zuen, orga-jokoa irabaziz.

Txapelketaren XX. aldia zen, eta 150 kirolarik hartu zuten parte 10 kirol ezberdinetan: sokatira, lokotz biltzea, txinga eroate, zakuramate lasterketa, harri-jasotzea, ingude altxatzea, lasto-alkatzea, orga jokoa, trontza eta aizkora.



Goian Urrutia: erdian Imanol Otermin eta Sukunza; behean Lander Otermin. HITZA

» SAILKAPENA

Probintzia

1. Nafarroa	62 puntu
2. Gipuzkoa	53 puntu
3. Bizkaia	49 puntu
4. Lapurdi	37 puntu
5. Araba	33 puntu
6. Zuberoa	22 puntu
7. Nafarroa Behera	21 puntu

2008ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA ARESO (NAFARROA)

TEL 948510327-608928626

Donostiatik 20 minututara Paradetaraino sarbidea kotxez

Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan burutuko da.

1. enkantea: irailaren 20an, larunbata, 19:00etan
2. enkantea: irailaren 27an, larunbata, 19:00etan



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Amezketeta.** Kultur Astea antolatzen hasteko bilera irekia egingo dute 20:30ean balioanitzeko gela.
- **Amezketeta.** 1944. urtean jaiotako amezketarrek kinto bazkaria ospatuko dute irailaren 27an, larunbata. Bazkaria Behartzana jate-txean 14:00etan. Izena emateko, 943 653831 telefono zenbakira deitu.
- **Amezketeta.** Irailaren 28an Altuna I eta Altuna II anaia erremontis-tei omenaldia egingo zaie eta Ergoneko pilotalekua inauguratuko da. Ondoren Ergoneko pilotalekuan bertan bazkaria ospatuko da. Sarrerak salgai daude herriko tabernetan 25 eurotan (haurrek 8 euro)
- **Tolosa.** Euskara ikastaroak etorkinentzat. Ereite elkarteak antolatuta, larunbatero, Kultur Etxean, 10:00etan, hilaren 15etik aurrera.
- **Tolosa.** Kultur tailerretan matrikulazio epea, hilaren 15etik 26ra. Iazko ikasleek 15etik 19ra eta berriek 22tik 26ra.
- **Tolosaldea.** Asvinenea Arte eszenikoen Laborategiak harizko txotxongiloak egiteko eta erabiltzeko ikastaroa antolatuta, Carlos Llopezek eskainia. Iraileko hirugarren eta laugarren asteburuan, 38 ordukoa. Informazioa 630 214 483 telefono zenbakian edo asvinenea@gmail.com helbidetan.

Erakusketak

- **Tolosa.** Rosa Maria Gullonen margoak ikusgai daude egun hauetan Lanbroa tabernan. Loreak ikus daitezke, oleo eta espatula metodoarekin egindako artelaneetan.
- **Tolosa.** Sukru Karakus artista turkiarraren pintura erakusketa Aranburu Jauregian urriaren 9ra arte.
- **Hernaldea.** Lander Gillenea eta Josune Martinez de Albeniz argazkilarien erakusketa izango da ikusgai, herriko ostatuan, azaroaren 11ra arte. Gaia: Prestige-n hondamena.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritziaren erantzunkizunik.

Parte hartzeko azken astea

BUDAPEST ●

Irati Reguerok argazki honekin hartu du parte VIII. Hitza Argazki Lehiaketan. «Budapestean izan ginenean benetan liluratuta geratu ginen eraikin honekin. Bertako parlamentua da!», dio Iratik.



TORREVIEJA

(ALACANT) ●

Argazki onenaren zain egoten jakin behar omen da. Bada, Iker Etxeberria Yarza tolosarrak ondo itxaron zuen oporraldi honetan Torreviejaren (Alacant) eginiko egonaldian. Arrantza-lea ilunabarrean ikus daiteke.

A Agurrak



Urte askoan!

Anizeto Sarasola (Anoeta).
Atzo 85 urte. Zorionak etxekoan eta Migelen partetik.



Urte askoan!

Unai. Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak